

# 1937ko apirilak 26



- 1937ra arte eraikitako aldea eta apirilaren 26ko bonbardaketak suntsitakoa
- Bonbardaketak kaltetu ez zituen eraikinak.

## ■ GERNIKAKO BONBARDAKETA.

**19**37ko apirilaren 26an ekin zioten erasoari airetik. Erasoan parte hartu zuten hegazkinak Gasteiz, Burgos eta Sorriako aerodromoetatik abiatu ziren.

George Steer kazetariaren arabera, erasoak hainbat fasetan burutu zuten:

1 - Erdi mailako bonbardaketa bat burutu zuten sei bonbardaketarik herriari ohartarazteko, hiribilduaren perimetro barruko babeslekuetan ezkuta zedin.

2 - Gero, ehiza hegazkinak zirkuluan hegaldatu zuten, herritarrek alde egin ez zezaten hirigunetik. Lurra erasotzeko Heinkel He51 hegazkinak 10 kg.-ko sei bomba eraman zezaketen aldean.

3 - Honen ostean, Junker Ju52 hegazkinak alfonbra erako bonbardaketa burutu zuten, iparraldetik hasi eta hegoaldean amaitu. Bomba txikitzaileak eta su bombak jaurtiki zituzten eta herria guztiz hondatuta utzi zuten.

4 - Ehiza hegazkinak zirkuluan eratu ziren berriro, herritarrek su-perimetrotik ihes egin ez zezaten eta, ondorioz, saraski handiagoa eragite aldera.

Wolfram von Richthofen berak (erasoaren erantzulea) azaldukoaren arabera, 31 tona bomba jaurtiki zituzten, gutxienez. Baina kopuru honetan ez dira kontuan hartzen ehiza hegazkinak botatutako bombak eta bonbaketa-rietatik eskuz jaurtitako su bombak

# Gernika 1937

## Babesleku antiaereoaren ibilbidea





1936ko uztailaren 22tik aurrera euskal lurretan izua eragiten zuten bonbardaketak zirela eta, Eusko Jaurlaritzak agindua eman zuten dekretu bidez herri guztietan babeslekuak eraikitzeko, herri horiek estrategikoki edo militarki balio handikoak izan ala ez. Gernikan, hain zuzen ere, alkateak udal arkitektoari agindu zion, gutxienez, sei babesleku publiko eraiki zitzan. Babesleku pribatu asko ere eraiki ziren aldi berean.

1



### Andra Mari kaleko Babeslekua Turismo Bulegoa

Azaroa - Martxoa: asteleheneetik ostiralera: 10:00 - 18:00 / Larunbat eta igandeetan: 10:00 - 14:00  
Apirila - Urria: asteleheneetik larunbat-era: 10:00 - 19:00 / Igandeetan: 10:00 - 14:00

Babeslekurik handiena Andra Mari kalekoa zen. Kale hau Artekalea eta Barrenkaleen artean dago. Babeslekuak 146 m<sup>2</sup> zituen eta 450 pertsona sar zitezkeen bertan. Udal arkitektoak Andra Mari kale estuan estalki bat jarri zuen. Estalkia egurrezko habe sendoen gainean jarri zen, eta han hareazko zakuak. Babeslekua seguruago egite aldera, altzairuzko lamina erabiltzeko asmoa zuten. Baina ez ziren garaiz iritsi laminok.

**+ INFO**  
**GERNIKAKO**  
**BAKEAREN**  
**MUSEOA**



2



### Pasealekuko antzinako babeslekuen sarrera

10:30 - 13:30 / 15:30 - 21:30

"Babesleku seguruenek Plaza de la Union-eko mendebaldera ematen zuten. Alde honetako horma mendi-mazelan kokatuta dago. Lau babesleku zulatu genituen kobazulo itxurakoak mendi-mazalean. Hamar metro zuten sakoneran. Merkatu eta Eria inguruko jendea gordetzeko egin genituen lau babesleku hauek."

Castor Uriarte, udal arkitektoa (1937)

Arkupeetan egindako tunel itxurako lau galerietatik bat amaitu gabe utzi zuten. Azken tunel hau bisitatzeko moduan dago deus ordaindu gabe, establezimendua zabalik dagoen ordutegian.

3



### Astra arma lantegiko babesleku antiaereo

Martxoa - Urria, asteleheneetik ostiralera: 10:00 - 19:00  
Larunbatetan: 10:00 - 15:00

Astrako babeslekua 1936ko irailean eraiki zuten, "Talleres de Gernika" eta inguruko beste lantegi batzuetako langileen babesleku izan zedin. Ahanzturatik berreskuratu dugu, bada, historiaren lekuko den eraikin hau, "Astra, Unceta y Cia" lantokiko pabiloi zaharra bota zutenean 2005. urtean. Hormigoizko eraikin hau ezkatuta zegoen gezurrezko sabai baten azpian. Hegazkinetako pilotuek, ondorioz, ezin zuten jakin babeslekua zenik, airetik ikusita.